*Haizea* arte
bihurtua

El *viento*
hecho arte

34.ª
edizioa
edición

ABUZTUAZTUAREN 30etik
AZAROAREN 3ra
30 AGOSTO
3 NOVIEMBRE



# Órgano

música para
Órgano
en Navarra

2018 Musika
Nafarroan

## PRENTSA TXOSTENA
## DOSSIER DE PRENSA

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

www.
cultura
navarra.es

# EGUTEGI / CALENDARIO

## ABUZTUA / AGOSTO

**30** — San Migel LARRAGA San Miguel 19:30
**LORETO FERNÁNDEZ IMAZ**

## IRAILA / SEPTIEMBRE

**03** — ESTELLA - LIZARRA Santa Klara / Santa Clara 20:15 SM/DE
**JUAN DE LA RUBIA**
Bidaia bat klabeorganoan XVI. mendeko Europan /
Un viaje en claviórgano por la Europa del siglo XVI

**04** — PUENTE LA REINA / GARES Gurutzearen eliza / El Crucifijo 20:00 SM/DE
**JUAN DE LA RUBIA**
Bidaia bat klabeorganoan XVI. mendeko Europan /
Un viaje en claviórgano por la Europa del siglo XVI

**15** — LEIREko Monasterioa / Monasterio de LEYRE 19:45
**LOÏC MALLIÉ**

**22** — Urraúl alto / URRAULGOITI Santa Fe 18:00
**CRISTINA ALÍS RAURICH**
**MAURICIO MOLINA**
Tot organa tot cymbala

**23** — ERRIBERRIko Paradorea / Parador de OLITE 19:00
**CRISTINA ALÍS RAURICH**
**MAURICIO MOLINA**
Tot organa tot cymbala

**29** — BERA San Esteban 18:00
**RAÚL DEL TORO**
Zahagiak eta ardoak
Odres y vinos

## URRIA / OCTUBRE

**06** — PAMPLONA / IRUÑA Santo Domingo 18:00
**ANDRÉS CEA GALÁN**

**07** — LEIREko monasterioa / Monasterio de LEYRE 12:45
**PABLO MÁRQUEZ CARABALLO**
XIX. mendeko pianista handiak organoan eserita /
Los grandes pianistas del XIX sentados al órgano

**12** — DONEZTEBE / SANTESTEBAN San Pedro 19:30
BIDASOAko ORGANOAREN EGUNA /
DÍA DE LOS ÓRGANOS DEL BIDASOA
11:00 | San Pedro
17:30 | Herrigune
19:30 | San Pedro
**IOSU LARUMBE**
Bidasoako organoak/
Órganos del Bidasoa

**13** — TUDELA / TUTERA Katedrala / Catedral 20:45
NAFARROAko ERRIBERAko EGUNA /
DÍA DE LOS ÓRGANOS DE LA RIBERA DE NAVARRA
11:45 - 13:30 Katedrala / Catedral
10:30 - 13:00 Katedraleko klaustroa / Claustro de la Catedral
17:00 Almirantearen etxea / Casa del Almirante
**JESÚS GONZALO LÓPEZ**
Flautatuetatik klarinetara/
De flautados a clarines

**20** — TAFALLA Andre Maria / Santa María 17:45
**DAVID GONZÁLEZ DE LA VIÑA**
**IÑIGO REMÍREZ DE GANUZA**

**27** — PAMPLONA / IRUÑA San Nikolas / San Nicolás 18:00
**ANA GARCÍA CARABALLOS**
**JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA**
Sintonizando infrecuencias

## AZAROA / NOVIEMBRE

**03** — San Migel LARRAGA San Miguel 19:30
**ESTHER CIUDAD**
**JUANJO GUILLEM**
Acción Aethra

# AURKEZPENA

## *Haizea* arte bihurtua

**José Luis Echechipía París**,"Organo musika Nafarroan" zikloko zuzendari artistikoa

ASKATASUNA, horra zer diren haizea eta musika. Ez ditugu ikusten, sentitzen baizik. Betidanik, naturan berean, elkarren lagun min.

Haizeak musika sortzen du naturan; musika desberdina, zer objekturi edo zer izaki biziduni lotzen zaion. Gizakiari hori aski litzaioke miragarri horri so atsegin hartzeko. Alabaina, isuri sortzailea dugun izakiak gara eta behar izaten dugu isuri hori nola edo hala ase. Musika tresnak horrexegatik asmatu ditugu, bertzeak bertze organoa, musika egiteko makina bat, barrenean ehunka edo milaka hodi dauzkana, forma eta neurri desberdinetakoak, haizea modu desberdinetan dardarazten dutenak; elementu horien soinuak ezin konta ahala modutan konbinatzen ahal ditugu, naturaren dinamikaren itxuran, nahiz eta inoiz ez hura bezain jori. Musika tresna honek, bederen, badu dohain bat: haraindikotasunaren zentzua suspertzen dio entzuleari, edo, aldiz, hurbilenarekin, bizitzan dagoen xumeenarekin lotzen. Eta hori guztia, nobleziaz beti.

Gure kulturaren testigu konplexu, aberats, zahar, gaur egungo eta ederra dugu; ezin, beraz, erabili ongi etorri egiten dion mundu eta gizarte honetatik aparte dagoen zerbait balitz bezala; ez da inoiz halakoa izan, eta gizarteek berek modelatuz joan dira beren izaeren arabera. Milaka urte ditu organoaren historiak eta, hala ere, inoiz ez da izan, gure inguruan bederen, gaur egun bezain isolatua eta ezezaguna. Horregatik, duela zenbait urtez geroztik,"Organo Musika Nafarroan" zikloa bere apurra egiten ari da gure instrumentua berriz ere izan dadin garai batean zen hura: Kulturaren, Zientziaren, Espiritualtasunaren, Artearen edo Literaturaren alor desberdinek pertsonen arteko harremanaren bidez elkar topatzeko bitartekoa; hori aberasten saiatzen gara gure gaurko testuinguru orokor nahiz tokikoan oinarrituriko ikuspegiarekin. Hagitz interesgarria da ohartzea zer desberdin diren zikloko bi emanaldi, non eta horrela. Tuteran nola Donezteben bertzela, Beran hola Tafallan hala, eta erdian Iruña, hiriburua den aldetik hainbertze eskaintzen duena, eta hain gabezia handikoa, jotzaileen, entzuleen eta antolatzaileen arteko giza hurbiltasunaz den bezainbatean.

Organoaren bertze alderdi interesgarri bat, kultur ondasuna den aldetik: haren ahalmena, herri tikietako biztanleak batzen dituzten elementuetariko bat bilakatzeko. Arrunt eskergarria da ikustea jende mota guztiengan pizten duen interesa, aditzera ematen zaielarik musika tresna interesgarria dutela herriko elizan. Interes horretan faktore desberdinak gurutzatzen dira belaunaldi bakoitzean: haurtzaroko oroitzapenak, adineko jendeak kontatzen duelarik nola laguntzen zion organistari haizearen hauspoari eraginez; kontzientzia, herri batek bere ondarea zaindu ezean bere funtsa galtzeko arriskua duela; instrumentu baten deskubrimendua, bazenik ere ez zekien jendearen aldetik...

Aurten,"Organo Musika Nafarroan" jaialdiak lehenago inoiz urratu gabeko tokiak bisitatuko ditu, hala nola Santa Fe, Urraulbeitin, eta Erriberriko paradorea, bi toki bikain Erdi Aroko musika egiteko eta entzuteko. Organoa konbinatuko du bere ohiko esparruan batere ohikoak ez diren musika tresnekin, bertzeak bertze organo eta perkusioko kontzertu bat, erran ohi denez, labetik atera berriko obrekin osatua, eta bertze bat, saxofoi eta organokoa, interpreteek berek instrumentuen konbinazio horretarako egokitutako errepertorioetan barneratuko dena. Aurten, behin berriz, elkarlanean ariko da Larragako organo zikloarekin, eta bisita eginen zaio Leireko Monasterioari eta bere organo sinfoniko bikainari, baita Berako San Estebango organo erromantiko entzutetsuari ere. Tafallak organo eta tronpetako kontzertu bati irekiko dizkio besoak; konbinaketa hau berezkoa du, baina ikuspegi pertsonalaz jantzia etorriko da oraingoan.

Gurea bezalako ziklo bat ospakizun bat izaten da beti; gure organoen aberastasuna eta aniztasuna oroitarazten digu, baita Musikak gure historian izan duen garrantzia ere. Aurten, bi ekitalditan, besta giroan erreibindikatuko dugu jaialdia bereganatzen duten herriek ondare hau kontuan hartu, merezi bezala zaindu eta haren balioa zabaldu beharra, herri bakoitzaren nortasunaren parte den aldetik. Egiteko franko dago alde horretatik, baina horrek, inor uzkurtu beharrean, lan horri buru-belarri lotzeko pizgarria da.

Azkenik, erran beharra dago gure organo zikloak handitu egin duela gure herriko alor desberdinetako erakunde, elkarte eta batasunak elkarretaratzeko eremua izateko bere isuria. Entitate horiek bidea ematen dute zikloa aberasteko, gizatiarragoa egiten baitute eta etekin gehiago ateratzen baitzaie herri bakoitzak eta jarduketa esparru bakoitzak ematen dituen aukerei. Alde horretatik, goretsi egin behar da Organoaren Lagunen Nafarroako Elkartearen (ANAO) laguntza; ziklo honi berak eman zion hasiera 1984 hartan. Laguntza horrek bidea emanen du lagun interesdun eta interesgarrien partaidetza modu eraginkorragoan gauzatzeko gurea bezalako jaialdi batean.

Haizea topaleku, gogoeta-bide, esperientzia-iturri... Haizea arte bihurtua.
Ongi etorri guztiei!

# PRESENTACIÓN

## El *viento* hecho arte

**José Luis Echechipía París**, Director artístico del ciclo "Música para Órgano en Navarra"

EL viento y la música son libertad. Ambos son elementos que no vemos, pero que sentimos. Y que, desde siempre, ya en la naturaleza, han estado estrechamente relacionados.

El viento produce música en la naturaleza, diferente según los objetos o seres vivos a los que se asocia. Podría bastar al ser humano este hecho para solazarse contemplando esta maravilla, pero somos seres con vocación creadora y necesitamos satisfacer esa vocación de algún modo; de ahí que hayamos inventado objetos como los instrumentos musicales; y entre ellos el órgano, una máquina de hacer música que contiene en su interior cientos o miles de tubos de formas, tallas y diferentes maneras de hacer vibrar el viento; elementos cuyos sonidos podemos combinar en infinidad de posibilidades, algo que puede asemejarse a la dinámica de la naturaleza aunque nunca pueda llegar a su riqueza. Eso si, la música que produce este instrumento posee el don de incitar en el oyente el sentido de trascendencia, o bien, por otro lado, de conectar con lo más inmediato y sencillo de la vida. Y todo ello, siempre con nobleza.

No debemos tratar a este complejo, rico, antiguo, actual y bello testimonio de nuestra cultura como algo aislado del mundo y de la sociedad que lo acoge; nunca lo ha sido, y las propias sociedades lo han ido configurando según su carácter. Sin embargo nunca, en sus miles de años de historia, ha sido el órgano algo tan aislado y tan desconocido como lo es en la actualidad, al menos en nuestro entorno. Por eso, desde hace años, el ciclo "Música para Órgano en Navarra" viene contribuyendo a que nuestro instrumento vuelva a ser lo que ha sido históricamente: un elemento de encuentro de distintos ámbitos de la Cultura, la Ciencia, la Espiritualidad, el Arte o la Literatura mediante la relación de las personas; algo que, además, se intenta enriquecer con un enfoque basado en nuestro contexto actual, general y local. Es muy interesante vivir lo diferentes que resultan dos eventos del ciclo según su lugar de celebración. Tudela frente a Doneztebe, Bera frente a Tafalla y en el centro Pamplona, la capital, que tanto ofrece como tal y de lo que tanto carece al mismo tiempo respecto a la cercanía humana entre intérpretes, público, organizadores...

Otro aspecto muy interesante del órgano como patrimonio cultural es su capacidad para erigirse en uno de los elementos que unen a los habitantes de las pequeñas localidades. Es muy gratificante ver el interés que se despierta entre todo tipo de gente cuando se les hace saber que tienen un interesante instrumento en la iglesia del pueblo. En este interés confluyen diversos factores dependiendo de cada generación: los recuerdos de infancia, cuando la gente mayor cuenta cómo ayudaba al organista accionando el fuelle del viento, la conciencia de que si un pueblo no cuida su patrimonio está condenado a perder su esencia, el descubrimiento de un instrumento por parte de gente que ni siquiera sabía de su existencia...

Este año, "Música para Órgano en Navarra" va a visitar lugares inéditos para el propio festival, como Santa Fe de Urraúl Alto y el Parador de Olite, dos lugares únicos para hacer y escuchar música de la Edad Media. Va a ofrecer combinaciones del órgano con instrumentos muy poco frecuentes en su ámbito habitual, como un concierto de órgano y percusión integrado por obras que, como suele decirse, están recién salidas del horno y otro de saxofón y órgano que se va a adentrar en repertorios adaptados por los propios intérpretes para esta combinación instrumental. También se va a colaborar, un año más, con el ciclo de órgano de Larraga y se va a visitar el Monasterio de Leyre y su magnífico órgano sinfónico, así como el emblemático órgano romántico de San Esteban de Bera. Tafalla acogerá un concierto de órgano y trompeta, una combinación característica aunque con un enfoque personal.

Un ciclo como el nuestro es siempre una celebración que nos recuerda la riqueza y variedad de nuestros órganos, así como la importancia de la Música en nuestra historia. Este año vamos a contar con dos jornadas en las que vamos a reivindicar de manera festiva que se tenga en cuenta este patrimonio por parte de las localidades que lo acogen, cuidándolo como merece y difundiendo su interés y valía como parte de la personalidad propia de cada pueblo. Hay mucho por hacer en este aspecto, pero ello, lejos de desanimar, es un motivo para involucrarse con pasión en esta labor.

Por último, hay que decir que nuestro ciclo de órgano ha aumentado su vocación de ser un ámbito en el que confluyan instituciones, asociaciones y agrupaciones de diversos ámbitos de nuestra tierra. Estas entidades permiten enriquecer el ciclo haciéndolo más humano y sacando mayor partido a las posibilidades que ofrece cada localidad y cada marco de actuación. En este sentido, hay que celebrar la colaboración de la Asociación Navarra de Amigos del Órgano (ANAO), la entidad que inició este ciclo allá por el año 1984. Esta colaboración permitirá articular de manera más efectiva la participación de personas interesadas e interesantes para un festival como el nuestro.

El viento hecho arte, motivo de encuentro, origen de reflexión, fuente de experiencias...
¡Bienvenido todo el mundo!

# KONTZERTUAK / CONCIERTOS

# LORETO FERNÁNDEZ IMAZ

Loreto Fdez. Imaz (1956) organo eta klabezin jotzaile donostiarra da. 7 urte zituenean hasi zituen musika ikasketak, eta, ordutik, etenik gabe jarraitu du. Irakaslea da Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia). Hogeita hamar urte baino gehiago, lanbide honetan jardun ostean –grabatzen, kontzertuak ematen eta irakasten–, eskerrak ematen dizkie irakasle guztiei haien irakaspenengatik, bai eta ikasleei ere, egunero ikasten baitu haiekin.

Loreto Fernández Imaz (1956) organista y clavecinista donostiarra. Comenzó sus estudios musicales a los 7 años y desde entonces, continúa sin parar. Enseña en Musikene (Centro Superior de Música del País Vasco). Después de más de treinta años de oficio -grabando, ofreciendo conciertos y enseñando- agradece a sus grandes maestras y maestros por todas sus enseñanzas, así como a todas y todos sus discípulos, con los que aprende cada día.



## *H. ESLAVAREN OMENALDIA*

Zenbait mendetako ibilbidea eginen dugu organo-literaturan barrena, trantsizioko organo honekin, eta Hilarión Eslava Maisuari omenaldia eginen diogu.

## *HOMENAJE A HILARIÓN ESLAVA*

Es un recorrido a través de los siglos de la literatura organística en este órgano de transición y en homenaje al Maestro D. Hilarión Eslava.

# JUAN DE LA RUBIA

Jatorriz Vall d'Uixókoa (Castelló), Juan de la Rubia Bartzelonako Familia Santuaren Basilikako organista titularra da eta irakaslea Esmuc eskolan (Kataluniako Musikako Goi Mailako Eskola). Europako agertoki nagusietan eman ditu kontzertuak eta bai Latinoamerikan eta Asian ere, eta ikusentzuleek eta kritikariek harrera bikaina egin izan diote. Azken urteetan, bere kontzertu-jarduera etengabea izan da, eta emanaldiak egin ditu hogei herrialdetan baino gehiagotan eta, besteak beste, hauetan: Madrilgo Musikako Auditorium Nazionalean, Bartzelonako Palaun, Berlingo Konzerthausen, Parisko Saint Sulpice basilikan, Leipzigeko Gewandhausen, Koloniako eta Westminster katedraletan (Londres), eta San Petersburgoko Mariinsky antzokian eta Philharmonian. Bakarlari aritu da Freiburger Barockorchesterrekin, Haendelen organorako kontzertuak eta Bachen kantatak interpretatzen, eta antzinako musikako instrumentu- eta ahots-talde desberdinetako zuzendari eta/edo kontinuista aritu da.

Johann Sebastian Bachi eskainitako bere diskoak "Urrezko melomano" saria eskuratu du, "erabateko errebelazio den lana" delako (Alejo Palau, 2016ko uztaila). ABC egunkariaren arabera, "urteko disko eder eta harrigarrienetako bat" da (Stefano Russomano, 2016ko iraila). Duela gutxi, bere azken CDa grabatu du, Antonio de Cabezónen musikasri eskainita, Bartzelonako Musikaren Museoko Hauslaib klabeorganoan. Scherzo aldizkariaren arabera, "esperientzia liluragarria zentzu guztietan". Aitarekin eta Ricardo Pitarchekin musika-ikasketak hasi eta gero, organoko eta pianoko prestakuntza hartu zuen Valentzian, Bartzelonan, Berlinen eta Okzitaniako Tolosan, eta bost sari berezi ere eskuratu zituen espezialitate desberdinetan. Bere irakasle izandakoen artean Óscar Candendo, Wolfgang Seifen, Michel Bouvard eta Montserrat Torrent daude. Azken hori babes handia izan zen bere prestakuntzan. Era berean, eskola magistralak eman dizkiote, esate baterako, Olivier Latry eta Ton Koopmanek. Bere errepertorioak antzinako musikatik egungo musikara arte doazen lanak hartzen ditu. Aitortza handiena lau arlotan iritsi zaio: Espainiako Errenazimentuko eta barrokoko teklaturako musika, Erromantizismoko lan handiak (barnean hartuta Wagner eta Brahmsen lanen transkripzioak. Azken horren kasuan, osorik transkribatu du 1. sinfonia, do minorren, Op. 68). 2003an lehen grabazio diskografikoa egin zuenetik, hamar disko kaleratu ditu bakarlari moduan. Beste artediziplina batzuetara zabalik, de la Rubia elkarlanean aritu izan da arte eszenikoetako pertsona ospetsuekin, hala nola Lluís Pasqual eta Nacho Duatorekin. Juan de la Rubia bere belaunaldian sari gehien jaso duen interpretatzaileetako bat da. Lortu dituen sarien artean, Espainiako Musika Gazterien Lehiaketa Iraunkorra nabarmendu behar da –inflexio-puntu erabakigarria ekarri zion bere musika-ibilbidean– eta Lehen Palau saria, Palau Kataluniako musikaren jauregiak emandakoa. 2012an, Reial Acadèmia Catalana de Belles Arts de Sant Jordi izenekoko kide izendatu zuten.

Natural de la Vall d'Uixó (Castellón), Juan de la Rubia es el organista titular de la Basílica de la Sagrada Familia de Barcelona y profesor en la Esmuc (Escuela Superior de Música de Catalunya). Ha actuado en los principales escenarios de Europa, así com en América latina y Asia, con una acogida excelente del público y la crítica. En los últimos años, su actividad concertística ha sido incesante, actuando en más de veinte países y en escenarios como el Auditorio Nacional de Música de Madrid, el Palau de la Música Catalana, la Konzerthaus de Berlín, la Basílica de Saint Sulpice de París, la Gewandhaus de Leipzig, las catedrales de Colonia y Westminster (Londres), y el teatro Mariinsky y la Philharmonia de San Petersburgo. Ha tocado como solista con la Freiburger Barockorchester, interpretando los conciertos para órgano de Händel y cantatas de Bach, y como director y/o continuista de diferentes formaciones instrumentales y vocales de música antigua.

Su disco dedicado a Johann Sebastian Bach ha obtenido la distinción "Melómano de Oro", como "un trabajo que es toda una revelación" (Alejo Palau, julio 2016). El diario ABC considera que se trata de "uno de los discos más bellos y sorprendentes del año" (Stefano Russo- mano, septiembre 2016). Recientemente ha grabado su último CD dedicado a la música de Antonio de Cabezón en el claviórgano Hauslaib del Museo de la Música de Barcelona, calificado por la revista Scherzo como "una experiencia fascinante en todos los sentidos". Tras empezar los estudios musicales con su padre y Ricardo Pitarch, se forma como organista y pianista en Valencia, Barcelona, Berlín y Toulouse, consiguiendo hasta cinco Premios Extraordinarios en diferentes especialidades. Entre sus maestros se encuentran Óscar Candendo, Wolfgang Seifen, Michel Bouvard y Montserrat Torrent, quien supuso un gran apoyo durante su formación. Igualmente ha recibido clases magistrales, entre otros, de Olivier Latry y Ton Koopman. Su repertorio abarca obras desde la Música Antigua hasta la actualidad. El máximo reconocimiento le ha llegado en cuatro ámbitos: la música para teclado del Renacimiento y Barroco españoles, las grandes obras del Ro- manticismo (incluyendo transcripciones de obras de Wagner y Brahms, de quien él mismo ha transcrito íntegramente la Sinfonía nº1 en do menor, Op. 68). Desde su primera grabación discográfica en 2003, ha publicado diez discos como solista. Abierto a otras disciplinas artísticas, de la Rubia ha colaborado con personalidades de las artes escénicas como Lluís Pasqual y Nacho Duato. Juan de la Rubia es uno de los intérpretes más galardonados de su generación. Entre los premios obtenidos destacan el del Concurso Permanente de Juventudes Musicales de España, que marcó un punto de inflexión decisivo para su carrera musical, y el premio El Primer Palau, concedido por el Palau de la Música Catalana. En 2012 fue nombrado miembro de la Reial Acadèmia Catalana de Belles Arts de Sant Jordi.



SMDE

## BIDAIA BAT KLABEORGANOAN XVI. MENDEKO EUROPAN

Bidaia bat klabiorganoan XVI. mendeko Europan barrena. Instrumentu ia ahaztua, hibridoa eta interesgarria, organoaren maisu baten eskuetan, Juan de la Rubiaren. Inoiz ez dugu izan hain gertu organo bat eta inoiz ez dugu entzun hain garbi aireak haren hodietan egiten duen xuxurla.

## UN VIAJE EN CLAVIÓRGANO POR LA EUROPA DEL SIGLO XVI

Un viaje en claviórgano por la Europa del siglo XVI. Un instrumento casi olvidado, híbrido e interesante, en las manos de un maestro del órgano, Juan de la Rubia. Nunca antes hemos tenido tan cerca un órgano, ni hemos escuchado el susurro del aire en sus tubos con tanta claridad.

# LOÏC MALLIÉ

1947an La Baulén jaioa, Loïc Mallié organistak, unibertsitate ikasketak egiten zituen aldi berean –Zuzenbidean lizentziaduna da–, musika ikasketak egin zituen Rennesko Kontserbatorioan, Pierre Froment eta Catherine Cohen musikarien eskoletan, eta beranduago Parisko Kontserbatorioan, Olivier Messiaen eta Henriette Puig-Roget musikarien eskoletan, besteak beste. Han, nazioarteko zenbait sari eskuratu zituen piano eta organo inprobisazioan. Azpimarratzekoa da Chartresko nazioarteko lehiaketako ehen sari handia.

Denbora luzez, Neuillyko Saint Pierre elizako Cavaillé-Coll organo handiaren jotzaile titularra izan da, Jean Claude Henryrekin batera, eta, beranduago, Lyongo Saint Pothin elizako organo handiaren jotzaile titular. 2011z geroztik, Parisko La Trinité elizako organo handiaren jotzaile titularra da, Thomas Lacôte eta Jean-François Hatton musikariekin batera.

Idazketa eta inprobisazio eskolak ematen ditu Parisko eta Lyongo goi mailako kontserbatorioetan. 2001. urteaz geroztik, akonpainamenduko eta inprobisazioko irakaslea da Musikenen.

Ibilbide nabarmena egin du, nazioartean (Europa, Amerika, Japon) kontzertuak ematen eta konpositore gisa (organoa, orkestra, ganbera musika). Olivier Latry egilearekin batera, Olivier Messiaen musikagilearen organo musikari buruzko liburua idatzi du.

Nacido en La Baule en 1947, Loïc Mallié ha compaginado sus estudios universitarios (es licenciado en Derecho) y sus estudios musicales en el Conservatorio de Renns de la clase de Pierre Froment y Catherine Cohen) y con posterioridad en el Conservatorio de París en las clases de Olivier Messiaen, Henriette Puig-Roget, entre otros. Allí Obtuvo varios primeros premios (en Armonía, Contrapunto y Fuga, Órgano e Improvisación). Igualmente es titular de varios premios internacionales de Improvisación al piano y al Órgano, destacando el primer premio del concurso internacional de Chartes.

Ha sido durante mucho tiempo cotitular del gran órgano Cavaillé-Coll de Saint Pierre de Neuilly, en compañía de Jean-Claude Henry; con posterioridad del gran órgano de Saint Pothin en Lyon y desde 2011, del gran órgano de La Trinité en París, en compañía de Thomas Lacôte y Jean-Françoiz Hatton.

Es profesor de escritura e improvisación en los Conservatorios superiores de París y Lyon. Desde 2001, es profesor de acompañamiento e improvisación en Musikene.

Tiene una importante actividad de concertista a nivel internacional (Europa, América, Japón) y de compositor (obras para órgano, orquesa, música de cámara). Es auotr junto con Olivier Latry de una obra sobre la música de órgano de Olivier Messiaen.



Loïc Malliék aurkezten du, alde batetik, zuzenean edo zeharka J.S. Bach musikariaren gainean eratutako kontzertua. Hori garbi agertzen da Liszt eta Schumann konpositoreen obretan eta Malliéren lehen inprobisazioan; ez hain garbi Franck egilearen 1. Koralean, zeina koralaren ohiko molde luteranoan oinarritzen baita, nahiz eta oso ikuspegi desberdina izan. Programaren osagarri, interpretatzaileak bigarren inprosibazioa eginen du, publikoaren proposamenei jarraikiz eta Donostiako Gorka Cuesta konpositore eta organo-jotzaile interesgarriaren obra batekin.

Loic Mallié presenta, por un lado, un concierto configurado, directa o indirectamente, sobre la figura de J.S. Bach. Este hecho se aprecia claramente en las obras de Liszt, Schumann y en la primera improvisación de Mallié; y de una manera más velada en el Coral nº *1* de Franck, obra que se basa en la forma típicamente luterana del coral, aunque con un enfoque muy diferente. El programa se completa con una segunda improvisación del intérprete según las propuestas del público y con una obra del interesante compositor y organista donostiarra Gorka Cuesta.

organoa garraiagarria / órgano portativo

# CRISTINA ALÍS RAURICH

Kontzertu emailea, musikologoa eta pedagogoa da. XIII. mendeko organo garraiagarri baten lehenengo berreraikuntza sortu zuen. Gaur egun, doktoretza ikasketak egiten ari da Würzburgeko Unibertsitatean (Alemania). Irakaslea eta zuzendari laguntzailea da Besaluko Erdi Aroko Musikaren Nazioarteko Ikastaroan (Medieval Music Besalú), eta zuzendaria Erdi Aro Beranteko eta Errenazimenduko Musikaren Ikastaroan, San Marinon. Magister Petrus taldeko (zuz.: Mauricio Molina) kidea da, bai eta Erdi Aroko musika jotzen duten beste zenbait taldetakoa ere. Organoaren berreraikuntzari eta XI. eta XII. mendeetako errepertorioari buruzko proiektu bat zuzentzen du Royaumont fundazioan.

Cristina Alís Raurich es concertista, musicóloga y pedagoga. Crea la primera reconstrucción de un órgano portativo del s. XIII. Cursa en la actualidad el doctorado en la Universidad de Würzburg (Alemania). Es profesora y asistente de dirección del Curso Internacional de Música Medieval de Besalú (Medieval Music Besalú) y directora del Curso de Música Tardo-Medieval y del Renacimiento de San Marino. Es miembro del ensemble Magister Petrus (dir. Mauricio Molina) y de diversas formaciones de música medieval. Lidera un proyecto acerca de la reconstrucción del órgano y su repertorio en los siglos XI y XII en la Foundation Royaumont.

Erdi Aroko tresnak / instrumentos medievales

# MAURICIO MOLINA

Musikologo eta interpretatzaile iparramerikarra da, XI., XII. eta XIII. mendeetako musikaren interpretazioan eta berreraikuntzan espezializatutakoa. Besaluko Erdi Aroko Musikaren Nazioarteko Ikastaroaren (Medieval Music Besalú) zuzendaria da, eta Magister Petrus Erdi Aroko musika jotzen duen taldearen zuzendaria, baita ere. Bere argitalpenetako bat da Frame Drums in the Medieval Iberian Peninsula (Reichenberger) liburua, American Musical Instrument Society elkartearen Nicholas Besseraboff saria jaso zuena.

Mauricio Molina es un musicólogo e intérprete norteamericano dedicado a la reconstrucción y la interpretación de la música de los siglos XI, XII y XIII. Es director del Curso Internacional de Interpretación de Música Medieval de Besalú (Medieval Music Besalú) y director del grupo de música medieval Magister Petrus. Entre sus publicaciones se encuentra el libro Frame Drums in the Medieval Iberian Peninsula (Reichenberger), galardonado con el premio Nicholas Besseraboff de la American Musical Instrument Society.





## *TOT ORGANA TOT CYMBALA*

Erdi Aroko musika-tresna garrantzitsuenetako bat da organoa. Erdi Aroko iturriek erakusten digute kanpai pitagorikoak maiz organoarekin batera irudikatzen direla elizaren barruan eta, elizatik kanpo, beste perkusio-instrumentu batzuen laguntza izaten dutela musika profanoan. Oraingo honetan organo garraiagarria erabiliko da, esku batekin teklatua jotzen eta bestearekin hauspoa aktibatzen uzten duen modelo bat.

El órgano era uno de los instrumentos más importantes de la Edad Media. Las fuentes medievales nos revelan que las campanas pitagóricas se representan frecuentemente junto al órgano dentro de la iglesia, y fuera de ella otros instrumentos de percusión lo acompañan en el repertorio profano. Se utilizará para la ocasión un órgano portativo, un modelo que permite al intérprete tocar el teclado con una mano y activar el fuelle con la otra.

# RAÚL DEL TORO

Iruñean, Bartzelonan eta Amsterdamen egin du bere prestakuntza, eta Espainiako hainbat tokitan eman ditu kontzertuak, bai eta Europako, Amerikako eta Asiako zenbait herrialdetan ere.

Organo irakaslea da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, eta eskolak eman izan ditu, baita ere, Salamancako eta Iruñeko kontserbatorio profesionaletan. Horrez gainera, irakasle gonbidatua da Kantabriako Unibertsitateko Nazioarteko Organo Ikastaroan.

Asteroko "El órgano" programa zuzendu eta aurkeztu zuen Radio Clásica irrati etxean. 2017ko irailean, Aita Donostiaren organorako obrari buruzko doktore-tesia defendatu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Formado en Pamplona, Barcelona y Ámsterdam, ha ofrecido conciertos en toda la geografía española, así como en diversos países de Europa, América y Asia.

Profesor de órgano en el Conservatorio Superior de Navarra, ha enseñado también en los Conservatorios Profesionales de Salamanca y Pamplona, además de ser profesor invitado del Curso Internacional de Órgano de la Universidad de Cantabria.

Dirigió y presentó el programa semanal "El órgano" en la emisora Radio Clásica. En septiembre de 2017 defendió en la Universidad Pública de Navarra su tesis doctoral sobre la obra para órgano del P. Donostia.



## *ZAHAGIAK ETA ARDOAK*

XX. mendearen hasieran, organo-jotzaileen belaunaldi berri bat Espainian hasi zen zenbait obra idazten, errepertorio horrekin organo erromantiko berrien baliabideak erakusteko, anbizio handiko idazketa baten bidez. Figura erabakigarriak izan ziren Aquilinio Amezua, organerian, eta Nemesio Otaño, alderdi musikalean, batez ere *Antología Moderna Orgánica Española* delakoan (1909), non agertu baitziren gaur entzunen ditugun konposizioetako gehienak.

Berako organo honetan –Amezuak egin instrumentu bikainean– konposito- re belaunaldi horren musika entzunen da. Atari gisa, Otaňok bere 1909ko Antologian sartu zuen Hilarión Eslavaren obra bakarra entzunen dugu.

## *ODRES Y VINOS*

A comienzos del siglo XX, una joven generación de organistas se lanzó en España a la composición de un repertorio en el que, mediante una escritura ambiciosa, deseaba manifestar los recursos de los nuevos órganos románticos. Fueron decisivas las figuras de Aquilinio Amezua en la organería y de Nemesio Otaño en lo musical, sobre todo en su *Antología Moderna Orgánica Española* de 1909, en la que vieron la luz la mayoría de las composiciones que escucharemos hoy.

Este órgano de Bera, obra maestra de Amezua, sonará con la música de esta generación de compositores. Como preludio, escucharemos la única pieza de Hilarión Eslava que Otaño incluyó en su *Antología* de 1909.

# ANDRÉS CEA GALÁN

Andrés Cea Galán organistaren jarduera profesionala interpretazioaren, musika ikerketen eta irakaskuntzaren artean banantzen da. Espainian, Frantzian eta Suitzan jaso zuen prestakuntza, eta doktoretza eskuratu zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Argitalpen ugari egin ditu, bereziki teklaturako musikaren interpretazioaren zenbait alderdiri eta organoaren historiari eta estetikari buruzkoak, eremu hispaniarrean. Kritikari espezializatuek nabarmendutako grabazio diskografikoak egin ditu Lindoro, Tritó, Aeolus eta Universal disko etxeentzat. Errepertorioaren ikuspegi berritu bat ematen du beti, eta, horri esker, maiz gonbidatzen dute kontzertu emaile, irakasle edo hizlari gisa Europako, Hego Amerikako, Mexikoko eta Japongo jaialdietara eta ikastegietara.

Andrés Cea Galán reparte su actividad profesional entre la interpretación, la investigación musicológica y la docencia. Se formó en España, Francia y Suiza, y es doctor por la Universidad Complutense de Madrid. Sus numerosas publicaciones se refieren, especialmente, a aspectos de la interpretación de la música para teclado y a la historia y estética del órgano en el ámbito hispano. Ha realizado grabaciones discográficas distinguidas por la crítica especializada para Lindoro, Tritó, Aeolus y Universal. Su visión siempre renovada del repertorio le ha valido para ser frecuentemente invitado como concertista, profesor y conferenciante por festivales e instituciones académicas de toda Europa, Sudamérica, México y Japón.




Programa honen ardatza dira Juan Cabanillesen obra batzuk, arrazoi bategatik edo beste bategatik oso gutxitan agertzen direnak kontzertuetako programetan. Besteak beste, tentu luze baina zoragarri bat, transmititu duen kopistak "mirarien mirari" deitu zuena. Osagarri gisa, Ama Birjinaren Letaniaren gaineko Tentu ospetsua eskainiko da, Pablo Brunarena, Arrosarioko Ama Birjinaren festaren bezpera ospatzeko.

Este programa se vertebra en torno a algunas piezas de Juan Cabanilles que, por unas razones u otras, resultan extremadamente raras en los programas de concierto. Entre ellas, un extenso pero fascinante tiento calificado como "prodigio de prodigios" por el copista que la transmite. Como contrapartida, se ofrece el famoso *Tiento sobre la Letanía de la Virgen* de Pablo Bruna, como pieza conmemorativa en la víspera de la festividad del Rosario.

# PABLO MÁRQUEZ CARABALLO



Valentziako Katedraleko organo jotzailea da, eta klabezinean katedraduna Valentziako Goi-mailako Musika Kontserbatorioan. Pablo Márquez Caraballok oso gaztea zela hasi zituen organo, klabezin eta konposizio ikasketak Valentziako Kontserbatorioan, eta karrera amaierako ohiz kanpoko bi lehenengo sari eman zizkioten aho batez. Urte horietan, Montserrat Torrent irakaslearen gidaritzapean jaso zuen prestakuntza, eta horrek eragin erabakigarria izan zuen bere geroko musika ibilbidean.

2007an, Frantziara joan zen bizitzera Valentziako Musika Institutuaren beka batekin, bere ikasketekin jarraitzeko Conservatoire à Rayonnement Régional de Toulouse kontserbatorioan, eta honako irakasle hauekin lan egiteko aukera izan zuen bertan: Michel Bouvard (organoa), Jan Willem Jansen (klabezina), Philippe Lefebvre (inprobisazioa) eta Guy Ferla (konposizioa). Amaierako azterketako "très bien" aipamenarekin amaitu zituen ikasketak.

2009an, antzinako musikaren interpretazioan interesa zuenez, Holandara joan zen, bere ikasketekin jarraitzera. Holandako Hezkuntza Ministerioaren Huygens Scholarship Programme beka entzutetsua lortu ondoren, Pablo Márquezek master ikasketak hasi zituen, organo espezialitatean, Conservatorium van Amsterdam kontserbatorioan, Pieter van Dijk irakaslearekin. Halaber, klabezineko eta antzinako musikako ikasketak egin zituen Hagako Erret Kontserbatorioan, Fabio Bonizzoni irakaslearekin, eta Ton Koopman eta Patrick Ayrton irakasleekin ikasteko aukera ere izan zuen.

Zenbait organo eta konposizio lehiaketa irabazi ditu; azpimarratzekoa da, adibidez, Lübeck hirian (Alemania) egiten den "Buxtehude" Nazioarteko Organo Lehiaketa. Era berean, organo eta klabezin kontzertu ugari eman ditu Europan eta Japonen bakarlari gisa eta ganbera eta orkestra taldeetako kide gisa; gainera, jaialdi garrantzitsuenetan jotzeko eta instrumentu historiko ugari jotzeko aukera izan du. 2012an, "Concertante a quattro" duoa eratu zuen bere emaztearekin, Atsuko Takano organo jotzaile japoniarrarekin, eta zenbait bira egin ditu harekin Espainian, Suitzan, Holandan eta Japonen. Duoarentzat egindako jatorrizko transkripzioek nazioarteko prentsaren aitorpena jaso dute maiz, eta entzuleengandik txalo ugari jaso dituzte.

2010 eta 2012 artean, Amsterdameko San Nikolas Basilikako organo jotzaile laguntzaile izan zen (Sauer organoa, 1889). 2012 eta 2015 urteen artean, aholkulari eta aditu gisa jardun zuen Valentziako Katedraleko organo sinfoniko-erromantiko berriaren eraikuntzan (Jean Daldosso organogileak eraiki zuen). Inaugurazio Jaialdian, Pablo Márquezek Francis Poulenc konpositore frantziarraren organo, tinbal eta hari orkestrarako kontzertua interpretatu zuen Valentziako Orkestrarekin batera, Yaron Traub zuzendari titularraren gidaritzapean.

2017ko irailean, historia doktoretzako gradua eskuratu zuen Valentziako Unibertsitatean, "Valentziako katedraleko organoen historia XVI.-XXI. mendeetan. Historia eta bilakaera" doktoretza tesiarekin; bikain "cum laude" kalifikazioa lortu zuen. Gaur egun, nazioarteko kontzertu jarduera bizi batekin uztartzen ditu irakaskuntza eta ikerketa. Bere hurrengo konpromisoetako bat da, adibidez, New Yorkeko (AEB) Cornell University-n emango duen hitzaldia, organogintza valentziarrak Joan Cabanillesen organo lanetan izan duen eraginari buruzkoa.

# PABLO MÁRQUEZ CARABALLO

Organista de la Catedral de Valencia y catedrático de clavecín del Conservatorio Superior de Música de Valencia, Pablo Márquez Caraballo comienza muy joven los estudios de órgano, clave y composición en el Conservatorio de Valencia, obteniendo dos primeros premios extraordinarios de final de carrera por unanimidad. Durante estos años, se formó bajo la tutela de Montserrat Torrent, quien influiría de manera decisiva en su posterior carrera musical.

En 2007 se traslada a Francia becado por el Instituto Valenciano de la Música, para continuar sus estudios en el Conservatoire à Rayonnement Régional de Toulouse, teniendo la oportunidad de trabajar con Michel Bouvard (órgano), Jan Willem Jansen (clavecín), Philippe Lefebvre (improvisación) y Guy Ferla (composición). Finaliza dichos estudios obteniendo la mención "très bien" en su examen final.

En 2009, interesado en la interpretación de la música antigua, se traslada a Holanda para continuar sus estudios. Después de ser galardonado con la prestigiosa beca Huygens Scholarship Programme del Ministerio de Educación Holandés, Pablo Márquez emprende los estudios de Máster en la especialidad de órgano en el Conservatorium van Amsterdam con el profesor Pieter van Dijk. Así mismo realiza los estudios de clavecín y música antigua en el Real Conservatorio de la Haya con Fabio Bonizzoni, teniendo la oportunidad de estudiar igualmente con Ton Koopman y Patrick Ayrton.

Ha sido ganador de varios concursos de órgano y composición, entre los que cabe destacar el Concurso Internacional de Órgano "Buxtehude", celebrado en Lübeck (Alemania). Asimismo, ha ofrecido numerosos conciertos de órgano y clave como solista y como integrante de agrupaciones camerísticas y orquestales en Europa y Japón, teniendo la oportunidad de participar en los festivales más importantes y de tocar en numerosos instrumentos históricos. En 2012 forma el dúo "Concertante a quattro" con su mujer, la organista japonesa Atsuko Takano, con quien ha realizado varias giras por España, Suiza, Holanda y Japón. Sus transcripciones originales para esta formación han sido reconocidas por la prensa internacional y aclamadas por el público.

Entre 2010 y 2012 fue organista asistente en la Basílica de S. Nicolás en Ámsterdam (órgano Sauer, 1889). Durante los años 2012-2015 colaboró como asesor y experto en la construcción del nuevo órgano sinfónico-romántico de la Catedral de Valencia, construido por Jean Daldosso. Durante el Festival de Inauguración, Pablo Márquez interpretó el concierto para órgano, timbales y orquesta de cuerdas del compositor francés Francis Poulenc con la Orquesta de Valencia y su director titular, Yaron Traub, al frente.

En septiembre de 2017 consiguió el grado de doctor en historia por la Universitat de València con la defensa de su tesis doctoral "Historia de los órganos de la catedral de Valencia durante los siglos XVI-XXI. Historia y evolución", con la calificación de sobresaliente "cum laude". En la actualidad compagina la docencia e investigación con una intensa actividad concertística internacional. Entre sus próximos compromisos se encuentra una ponencia en la Cornell University de New York, EE. UU. sobre la influencia de la organería valenciana en la obra orgánica de Joan Cabanilles.

## *XIX. MENDEKO PIANISTA HANDIAK ORGANOAN ESERITA*

XX. mendearen hasieran, organo-jotzaileen belaunaldi berri bat Espainian hasi zen zenbait obra idazten, errepertorio horrekin organo erromantiko berrien baliabideak erakusteko, anbizio handiko idazketa baten bidez. Figura erabakigarriak izan ziren Aquilinio Amezua, organerian, eta Nemesio Otaño, alderdi musikalean, batez ere Antología Moderna Orgánica Española delakoan (1909), non agertu baitziren gaur entzunen ditugun konposizioetako gehienak.

## *LOS GRANDES PIANISTAS DEL XIX SENTADOS AL ÓRGANO*

